

LITERATURA. Ez du aldizkotasun finkorik

«Lehen euskal aldizkari erotikoa» aurkeztu dute

‘Ostia!’-ren 26. zenbakia da ‘Pornolore’: 20 ipuin erotiko eta 80tik gora irudi dauzka

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Aurretik fanzine erotikoak izan direla argi utzita —Vicente Gil de Paulesek sortu eta argitaratutakoak—, «lehen euskal aldizkari erotikoa» aurkeztu zuen atzo Paperzaleak Elkartek: *Pornolore*. Berez, *Ostia!* aldizkariaren 26. zenbakia da, zenbaki berezia, erotismoaren edo pornografiaren inguruko monografikoa, 20 ipuin eta 80tik gora irudi erotikoz osatua, eta azpizburu *Larrugintzako eskuliburu* du. Ipuin gehienak egundaino argitaratu gabeak dira; bada aurretik *Ostia!*-n argitaratutako ipuinik —eta baita *Putz*-en argitaratutako bat ere— baina *Pornolore*-n egokitu eta hobetuta ikusi dute horiek argia.

Joxe Azurmendiren esaldi bat ekarri zuen gogora Jon Arano Paperzaleak Elkarteko kideak atzo eguerdian Donostiako Sex Pittlingorri sex-shopean egindako aurkezpenean: «Euskal literatura ez da arriskatu haragiarekin». Arrisku horri aurre egiteko gertu agertu dira *Ostia!* argitaratzen duten kideak. Jon Aranok apailatu du *Pornolore*, eta ipuinen sinadurei dagoen lekuan izen eta ezizen hauek ageri dira, besteak beste: Alberro Ganberro, Juami Erauskin, Balda Baldarra, N'igar Malkovich, Dick's Shoe, Marrano-ia, Kohoni Antuan, Bart Gabeko, Kexexo KZ-ari, Galder Peguntegi Dudagoitia, Uka Pirme Pirma, Oskar Wil de Vero, Lola Pagola, Jon Belarra, Margari Hartua, Inexa Gax, Yosu Kristonageina...

Irudiak, berriz, Internetetik eta beste aldizkari eta liburu batzuetatik hartuak dira, «arlo horretan Euskal Herrian produkzio propioa lantzea ez delako batere erraza».



Jon Arano.

Ipuin eta irudiez gain, besterik ere badu *Pornolore*-k: ezizenez sinatutako bi poema eta artikulatu bat, Jon Aranoren sarrera (*Yopu zoriontsuak*), Juan Martin Elexpuruk idatzitako apologia laburra, Jexux Mari Mendizabalen zutabe baten berrargitalpena eta Iñaki Olaizola Sex Pittlingorri sex-shopeko ardura-dunari egindako elkarriketa.

Parodia, salaketa eta satira

Aldizkari pornografikoetako narrazioek ez dituzte, Aranoren ustez, hala sinetsarazi nahi duten arren, irakurleek idazten, aldizkarietako erredaktoreek bai, eta «literatura txarra eta faltsua» izan ohi dira. Literatura hori «parodiatu, salatu eta satirizatu» nahi dute *Pornolore*-ko ipuinek. Aldizkaria «edozein euskaldunengana» iristeko modukoa da, Aranoren ustez.

Pornolore-k ez du aldizkotasun finkorik. «Litekeena da *Ostia!*-ren beste zenbaki batzuk *Pornolore*-ren modukoak izatea, baina ez dugu ezer erabakita», esan zuen Aranok. «Esan dezakegun bakarra da sexu kontuez aseta gaudela aldizkari hau egin eta gero; ni bai, behintzat».

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin

Wisconsingo kalitatezko labelaz

Garbage

Lekua: Bilboko La Casilla kiroldegia. Data: ekainak 13. Jende kopurua: 2.000 lagun.

Taldea 20 minutu berandu agertu zen agertokian. Aretoa ez zen bete, baina sarrera ona ikusi zen. Zementuzko infernu honetan soinu ona lortu zuten, La Casillan oso gutxitan gertatzen dena. Ohiko laukotea bost izan ziren ekitaldi honetan, Butch Vig bateria jotzaileak ordezkoa bidali zigulako. Shirley Manson izan zen hasieratik begirada guztien helburua. Xarma berezia du Edinburgoko emakumeak.

Kontzertu laburra izan arren, diskoetan bezala, kantu biziak eta biribilak bete zituzten, zuzenak, kutsagarriak eta ederrak. *Beautiful garbage* hirugarren diskoa aurkeztu zuten, eta lan horretatik dozena erdi bat kantu berreskuratu zuten: *Androgyny*, *Cup of coffee*, *Shut your mouth...* Bigarren lanean aritu ziren gehienbat (*Push it*, *Temptation waits...*) eta kantu zaharrenak (askoren ustez onenak) azken atalera utzi zituzten (*Milk*, *Stupid girl*, *Vow* eta bisetako *Survixen*). Gainera, astia izan zuten bertsiotzat egiteko: The Ra-



Garbage taldea, zuzeneko emanaldi batean.

monesen *I just want to have something to do*.

Lan fina egin zuen erritmo bikoteak (bateria jotzailea metakrilatozko manpara baten atzean kokatu zen) eta kolpe indartsu eta zuzenak sentitu genituen nota grabeetan. Duke Eriksonen eta bigarren gitaristak ez zuten atsedena dirik hartu: milaka efektuz jolasteaz gain teklatueta ere aritzen ziren tarteka. Aurrean entzuleak dibertitu ziren, kantari, dantzan eta saltoka. Es-

kerrak emateko, Shirley Mansonek hainbat esaldi bota zuten, gaztelaniaz.

Pop eta rock indartsua, gitarretan oinarritua

Taldea bere onena erakutsi zuen: pop eta rock indartsua, gitarretan oinarritua, joko elektronikoak baztertuz. Horrela ikusita, laborategian sortutako taldea delako zurrumurrua erabat desegiten da, Wisconsingo kalitatezko labelaz.

KRITIKA MUSIKA

Jesus Mari Begoña

Bukaera erromantikoa

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia. Eguna: ekainak 13. Egitaraua: Pierre, Mendelssohn, Txaikovski. Zuzendaria: Juanjo Mena.

Bakarlarria: Viktoria Mullova.

Modu ederrean abiatu da BOS erromantizismo eta nazionalismoaren bideetatik denboraldiko azken kontzertuetan. Pierre Loti-ren lanean oinarritu zen 1908an Piernek *Ramuntxo* fantasia-baleta asmatzeko: halako era koloretzuan jo zuten musikariek euskal erritmo eta doinuez jotako obertura distiratsua.

Viktoria Mullova errusiar biolin jotzaile bakarlarriak teknika ona eta gozotasuna adie-

razi zituen Mendelssohnen biolin kontzertuan, lirismo eta birtuosismoaren artean kulunkatzen den horietakoan. *Allegro molto*-an grina hasieran eta lasaitasuna eman zion joaldiari, agian presaka goranzko arpegiotan. Halaber, sentimendua adierazteko da, oso, *lied* hirukoitzaren *Andantea*: zuzentasuna igarri zitzaien, baina lau samar gure gusturako. Azken *Allegretto* eta *Allegro molto vivace*-etan argitasuna eman zuen agudoetan, eta errepikatu zituen lehen mugimenduaren ezaugarriak. Entzuleei asko gustatu arren, ez zuen eskupekorik eman.

Bukatzeko, gure orkestrak eta Mena zuzendariak arra-

kastari eutsi zioten Txaikovskiren *4. sinfonia*-n. Patuari eginko hausnarketa ezkorra adierazten du konpositoreak utzi zigun egitarauan. Izaera hori argi utzi ziguten metalezkoek hasieran, poztasun moderatua utzi ere egurrezkoek segidan. *Andantinoan*, oboe bakarrak eta txeloen errepikapenak sartu zituzten iraganari eginko itzulera nostalgikoan. Jarraipena ere ona izan zen. Mena maisuak, zuzendaritza zehatz eta entregatuaren bitartez, ondo islatu zuen patuaren beharaldiaren gainetik sortuko litzatekeen itxaropen bakarra: gizakiek emango litzatekeen harreman atsegingarriak.

ez bai

Eztabaida: Nobela al da genero nagusia euskarazko literaturan? Zergatik bai? zergatik ez?

Eman zure iritzia!!

<http://www.egunkaria.com/eztabaida> Egunkaria